

KONTU-KONTARI**KALATXORI BATEN BAITAN**

Uda betean, iluntze aldera, Arrigorri hondartzako urertzean bada kalatxori bat. Zer ote dabil baina bere baitan? Akilla mendiaren gerizpeak harrapatu du, eguzkiaren azken errainuek ihesi doazkiola ur azalean, olatu txiki leun gozoen apar-bitsetan. Bakarrik dago kalatxoria. Bere kalatik urrun, urrunegi. Bakarrik utzi dute antza. Ezin jakin. Zirkinik egin gabe hodeiertzera begira, lantzean behin karranka, badu zerbait bere baitan.

Uda izan arren gaztea, negua du kalatxoriak. Mamu beltzak ageri zaizkio hondar zurian. Zein itzala den zahartzaroa, nekez esan daitekeela benetan sentitzen dena. Sasoi bateko gomutak datozkio bueltan, gazte zenekoak, ausart eta aske, hara joan eta hona etortzeko. Bere hegoek haizea ebakitzen zuten orduan, itsasoari berari ere desafio egiteraino, zeharka begiratu bitartean atzean utzitako uberari.

Bizitzaren ibilbidea egina du ordea. Eta heldu da benetako unea, sakon aztertzeko barrua, ongia eta gaizkia. Hala bada, barkamena ere eskatu nahiko lioke hari edo honi, ezin baina, inguruan ez du-eta inor. Non daude bada enparauak? Berba batzuk besterik ez, azkenak agian, gura lituzke esan, adierazi. Alabaina, arlanka batek txalupa itsas hondora lotu ohi duen

bezala lotu zaio hitza isiltasunik sakonenera, ezin esanik gogorrean. Hau nekea hau kalatxori koitaduarena. Nekea ala estutasuna? Bi-biak seguru asko. Larri dabil, gaua noiz egingo, beldurrak zeharo lausotuta, urik gabe itota. Gutxienez, lurak eguzkia irentsi baino lehen norbait hurbilduko balitzaio. Aitzitik, ezari-ezarian badoa den-dena itzaltzen. Begiak zarratzea erabaki du halatan, atsekabetik ihesi. Bata lehenengo. Bigarre-na orduko, berriz, ezusteko galanta. Argiunea antzeman du itsas magalean bertan. Norbait datorkio, astiro baina badator-kio. Besoa luzatuta gainera, bare-bare, itsasotik lehorreraino. Eta sumatu du behingoan besarkada estua. Lagun egin du ilar-gia, gauak ere baduelako bere argia.

Francisco Javier Arrieta Idiakez